



Errefuxiatuen, migratzaileen eta aberrigabeen babes hobetzeko proposamenak

TESTUINGURU PIXKA BAT

Iraupen luzeko gatazkek, krisi humanitarioek eta transnazionalen jardueraren ondoriozko ingurumen-degradazioak eragiten dute, besteak beste, babes bila gero eta pertsona gehiago egotea. ACNUR agentziak emandako datuen arabera, **79.5 milioi pertsona** lekualdatzera behartuak izan dira mundu osoan.

2019an, Espainiako Estatuak errekor historiko bat erregistratu zuen asilo-eskaeren kopuruan. **118.264 pertsonak** (53.723 emakumek eta 64.541 gizonek) eskatu zuten nazioarteko babes; gehienak Latinoamerikako herrialdeetatik etorriak dira (Venezuela, Kolonbia, Honduras, Nikaragua, El Salvador eta Peru, ordena horretan), baina gero eta gehiago dira Erdialdeko Amerikako pertsonak, krimen antolatua jazarpena dela eta. Horrek ez du esan nahi beste leku batzuetako pertsonarik ez dagoenik babes bila, baina beste herrialde batzuetan mugak esternalizatzeak (esaterako, Maroko, Libia eta Turkia) eta igarotze-bisa edukitzeko betebeharra eskatzeak, hala nola Siria eta Palestina herrialdeetatik datozen pertsonen eskatzeak, zera eragin du: pertsona horiek Europara ez iristea, eta haien igarotzeak gero eta indarkeriazkoagoak izatea.

Horrezaz gain, COVID-19 gaitza dela-eta egun bizi dugun osasun-krisialdiaren ondorioz, pertsona asko ez aurrera, ez atzera geratu dira mugetan, behin-behineko kanpalekuetan, oso egoera kaskarrean eta koronabirusaren eraginpean egoteko arrisku handiagoa dutela. Gainera, koronabirusaren aurkako borroka aitzakiatzat hartuta, Kolonbian, El Salvadorren, Hondurasean eta beste herrialde askotan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonak arriskuan jartzen dituzten gobernu-adierazpenak eta -jarrerak ugaritu egin dira.

Egoera Euskadin, Estatuko gainerako lekuetan bizi dutenaren oso antzekoa da. **4.826 lagunek eskatu zuten asiloa joan den urtean: 3.395 pertsonak Bizkaian, 891 pertsonak Araban eta 540 pertsonak Gipuzkoan.** 2018. urteko egoerarekin alderatuta, kopurua halako hiru da; urte hartan 1.595 eskaera erregistratu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. 2019an aurkeztu ziren asilo-eskaera guztien ia erdia CEAR-Euskadik lagundu zuen kudeatzen (2.328), eta nazionalitate eskatzaile nagusiak Venezuela, Nikaragua, Kolonbia, Honduras eta Georgia izan ziren, ordena horretan.

Joera berdintsua da 2020an. Nahiz eta COVID-19aren ondorioz asilo-izapideak eten egin diren, **urteko lehenbiziko 4 hilabeteetan 1.124 asilo-eskaera erregistratu dira Euskal Autonomia Erkidegoan.** Errefuxiatuek eta migratzaileek lehendik jada zituzten arazoetako asko orain areagotu egin dira, osasun-krisialdiaren ondorioz. Arazo horietako batzuk dira, adibidez, enplegua lortzeko eta etxebizitza eskuratzeko arazoak, besteak beste.

Euskal gizarteak askotan erakutsi du errefuxiatuenganako elkartasuna; izan ere, erbestea ezagutu genuen duela ez asko, eta, beraz, orain babesleku izan nahi dugu.



PROPOSAMENAK

CEAR-Euskadik aukera paregabekat hartzen ditu Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeak alderdi politikoek hainbat neurri hartzeko konpromisoa hartu dezaten, Euskadin bizi diren migratzaile, aberrigabe eta errefuxiatuen eskubideak bermatzeko, eta COVID-19ak eragindako krisialdiari aurre egiteko etorkizunean egingo diren plan ekonomiko eta sozialetan kolektibo horren berriazko beharrei erantzuteko.

Hauek dira gure proposamenak:

1. Alarma-egoeraren ostean, Espainiako gobernuaren aurreko eraginaren esparruan:

- Nazioarteko babesa lortzeko prozedurarako aukera ziurtatzea **berme guztiekin**, behar duten pertsoneri. Ez-itzularazteko printzipioa aplikatzen jarraitzea konfinamenduaren arintzealdian.
- **Nazioarteko babesa lortzeko prozedurak iraun bitartean kalitate-estandar egokiak** bermatzea. Ezinbestez saihestu behar da alarma-egoera amaitutakoan gehiegi luza daitezela bai asilo-eskaeren formalizazioak, eta bai eskaera horien jardunbideak zein ebazpenak. Premiazkoa da ebazpen zain dauden 100.000 espedientetik gora erabakitzea.
- **Erregularizazio bereziko** neurriak abian jartzea, bai Espainiako Estatuan atzerritarren eskubideak bermatzeko, eta bai migrazioa kudeatzeko beste eredu malgu, arin eta eraginkor bat artikulatzeko, neurri iraunkor eta eskuragarriekin, migratzaileek eta asilo-eskaera ukatu zaien legezko egoera erregularra izan dezaten.
- **Asilo-prozeduran sartzeko legezko bide seguruak** bermatzea:
 - Espainiako enbaxada eta kotsuletxeetan asiloa eskatzeko aukera irekitzea; bisa humanitarioak erraztea; birkokatzearen alorrean hartutako konpromisoak betetzea; birkokatze asmo handiko programa iraunkorra onartzea; eta familia berrelkartzeko baldintzak malgutzea.
 - Ceutako eta Melillako mugetan, asilo-bulegoetarako sarbidea bermatzea nazioarteko babesa bilatzen duen pertsona orori, batez ere bidean direla genero- eta salerosketa-indarkeria bizitzeko arriskua duten emakumei eta neskatzei, edozein dela nazionalitatea.
 - Horrekin guztiarekin, asilo-prozedurarako aukera eta familia berrelkartzeko aukera bermatzeaz gain, galarazi egingo litzateke itsasoz zein lehorrez egiten dituzten ibilbide arriskutsuetan errefuxiatuak trafikatzailen esku gelditzea, giza salerosketa eta beren bizitza arriskuan jartzea, eta, zenbaitetan, hiltzea.
- **Asilo-eskubidearen eta babes subsidiarioaren araudi erregulatzailea eguneratzea.** Europako zuzentarauen erregelamenduzko garapena ez



da egin eta ez dira gurera ekarri, estatuek hartutako itun eta konpromisoekin bat etorritik.

- **Giza salerosketaren biktimei osoko babesa eta laguntza emateko lege bat onar dadin eskatzea**, salerosketa-egoeran edo -arriskuan dauden emakumeei babesa eskaintzeko.
- **Atzerritarrei buruzko Legearen Hamargarren xedapen gehigarria kentzea**, arrisku larrian jartzen baitu asilo-eskubidea, ez dituelako jasotzen «mugan atzera botatzea» aukera berria gauzatzeko prozedura eta beharrezko bermeak. Arau horren babesean, nazioarteko babesa merezi duten pertsona asko Marokora kanporatzen dira oraindik ere, asilo-prozedura eskuratzeko aukerarik gabe, nahiz eta beren bizitza arriskuan egon. Europako eta nazioarteko araudia larri urratzea dakar horrek.
- **Asilo-gaietako eskumenen transferentziaren esparruan:**
 - **Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonen, errefuxiatuen eta aberrigabeen harrera eta integrazioa bermatzea:** harrera-sistema malgu eta iraunkorra lortzeko lan egitea, gizarteratze-prozesu eraginkorra bermatzeko, gure herrialdeko gizarte- eta lan-premia aldakorrei egokitzeko, behar bereziak dituzten pertsonak artatze aldera baliabide egokiak ziurtatzeko, eta aldi berean pertsonen dibertsitatea (generoa, sexu-orientazioa, erlijioa, kultura, adina...) aintzat hartzeko.
- **Atzerritartasun-gaietan, gizarteratzeko eta laneratzeko eskumenak erreklamatzeko. Lan- eta bizileku-baimenak kudeatzeko ahalmen handiagoa:**
 - Lan- eta bizileku-baimenak izapidetzea.
 - Errotzeari eta familia berrelkartzeari buruzko txosten lotesleak igortzea.
- Muga-politiken esparruan, **esternalizatzeari uztea eta giza eskubideak errespetatzen ez dituzten hirugarren herrialdeekin akordioak sinatzeari uztea**, bai eta mugen kontrola garapenerako laguntzaren baldintza izateari uztea ere, migratzaileek eta errefuxiatuek behar bezalako babesa izan dezaten bermatzeko.

2. Eskubideak eta zerbitzu publikoak eskuratzeari dagokionez:

- **Autogobernuko proposamenean hau sartzea:** “Euskadin bizi diren pertsona guztien **eskubideen eta betebeharren berdintasuna**, haien nazionalitatea edo jatorria edozein dela ere”.
- Euskadira iristen diren eskatzaile, nazioarteko babesaren onuradun eta aberrigabe guztiek **eskubide, zerbitzu eta baliabide publikoak eskuratu ahal izango dituztela bermatzea, haien jatorria eta sarrera-bidea edozein direla ere**, beren berariazko beharrak kontuan hartuta.



- **Etxebizitza soziala, eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-arloetako baliabide eta prestazioak eskuratzeko aukera bermatzea**, eta, horretarako, eskatzaileen, nazioarteko babesaren onuradunen eta aberrigabeen zailtasunak kontuan hartuko dituzten irizpideak jartzea, aintzat hartuta egoera bereziki ahulean dauden pertsonen aukera, hala nola genero-arrazoiengatik jazarpena jasan duten edo indarkeria matxistaren biktima diren emakumeena.
- **Etxebizitza publikoan sartzeko irizpideak ezartzea**, kontuan hartuta higiezinaren merkatu normalizatuan sartzeko zailtasun egiaztatuak dituzten onuradunak, nazioarteko babesa eskatzen dutenak eta aberrigabeak.
- **Prestazio sozialak eskuratzeko (eten orde) erraztuko duten irizpideak ezartzea**; esate baterako, jatorrizko herrialdean lortu ezin diren dokumentuak edo Espainiako Estatuan ez dauden senideei buruzko dokumentuak aurkeztetik salbuestea, izapideak bizkortzea eta komunikazioa hobetzea.
- **Prestakuntza jasotzeko eta lana aktiboki bilatzeko erraztasunak ematea**, eta, horretarako, prestakuntza egoki, publiko eta doakoa ematea, bai tokiko hizkuntzak ikasteko, bai etorkizunean lana lortzeko aukera gehiago izan dezaten prestatzen jarraitzeko.
- **Osasun mentaleko arreta-sarea edo arlo psikologikoa lantzeko taldekako bitartekoak eskuragarri jartzea**, bizi izandako egoera traumatikoen ondorioak arintzeko zein sendatzeko.

3. Kulturarteko bizikidetzeta eta aniztasunaren kudeaketa sustatzeari dagokionez:

- EAEko biztanleriari zuzendutako **sentsibilizazio-jarduerak** egitea, hala nola zurrumurruen aurkako estrategien berri ematea, errefuxiatuen eta migratzaileen gizarteratzea eta haiekin batera bizitzea errazteko.
- **Memoria historikoari** garrantzia ematea, erbeste izan ginelako, duela ez asko. Orain guri dagokigu babesleku izatea.
- **Diskurtso arrazista eta xenofoboaren aurka** jarrera irmoa hartzea, eta diskurtso politikoek ez dutela immigrazioa erabiltzen eta ez dutela gorrotoaren bidez gizarte-haustura sustatzen zaintzea.
- **Tratu-desberdintasunaren eta diskriminazioaren biktimetako arreta** abian jartzea zerbitzu publikoek.

4. Euskadin harrera humanitarioa egite aldera baliabideak zein zerbitzuak eskaintzeko estrategiak, ibilbidean itsas salbamendua egiteko estrategiak eta jatorrizko herrialdeetan lankidetzan aritzeko estrategiak sortzeari dagokionez.

- **Behartutako lekualdatzeak eragiten dituzten arrazoiengan** eragitea.
- **Giza eskubideak errespetatu eta babesteko direla ziurtatzea, euskal enpresen jarduerak giza eskubideetan izan dezaketen eraginaren aurrean**. Horretarako, enpresek atzerrian egiten duten jardun osoaren gaineko kontrola izan behar dute, enpresek eurek nahiz enpresa subsidiarioek giza



eskubideak errespetatu eta babesten dituztela ziurtatzeko. **Konpromiso horrek berebiziko garrantzia du, egiaztatuta baitago interes ekonomikoak direla gatazka armatuak eta lekualdatze behartuak egoteko arrazoi nagusia.**

- Arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak babesteko konpromisoari eustea aldi baterako babeseko bitartekoekin, hala nola Euskal Programarekin, bai eta jatorrizko herrialdeetan lankidetzarako ekimenak gauzatzen jarraitzeko konpromisoari eustea ere.

5. Migrazioaren Idazkaritza eratzea Eusko Jaurlaritza berrian (immigrazioa, emigrazioa eta nazioarteko babesa)

- Migrazioaren alorreko erronka berriei giza eskubideen ikuspegia oinarri hartuta erantzuteko, gobernu berriak arlo horretako agenda politikoa sustatzeko adinako gaitasuna duen egitura bat behar du. **Lehendakaritzaren lan-arloko Migrazioaren Idazkaritza batek** bere gain har lezake lidergo hori, beharrezko koordinazioak antolatzeko jarrera egokia hartuta, bai Eusko Jaurlaritzaren barruan, bai proposamenak garatzen inplikaturako gainerako erakundeekin (gobernu zentrala, foru-aldundiak eta udalerriak), eta bai hirugarren sektoreko erakundeekin.

ⁱ *Betiere bat eginez Nazio Batuen Erakundeak Enpresen eta Giza Eskubideen esparruan onartu dituen printzipio gidariekin eta Giza Eskubideen Kontseiluak «Babestu, Errespetatu, Zuzendu» esparruaren barruan onartutako 17/4 Ebazpenarekin.*